



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKO UDALA

BERRIOZAR

Convocatoria de ayudas para estudios musicales en la Escuela Municipal de Música "Francisco Casanova" de Berriozar Curso 2020/2021

Bases Regulatorias

I.-Estudios incluidos en la convocatoria.

Base 1.-Podrán solicitar acogerse a estas ayudas todo el alumnado que este empadronado en Berriozar que esté cursando en la Escuela Municipal de Música "Francisco Casanova", enseñanzas musicales en el curso escolar 2020/2021.

II.-Tipos de ayudas que se conceden.

Base 2.-Las ayudas que se conceden tienen la finalidad de ayudar en parte a las familias en la financiación de los gastos que este tipo de estudios comportan.

III.-Requisitos generales que debe reunir la persona solicitante.

Base 3.1.-Las personas solicitantes y posibles beneficiarias de las ayudas serán en todos los supuestos:

-El padre, madre, tutor o tutora legal respecto de los estudios realizados por ellas mismas o de todos sus hijos e hijas o personas a su cargo menores de 18 años o que teniendo de 18 a 25 años no hayan terminado de cursar los 8 años de instrumento.

-En nombre propio, las personas no incluidas en el párrafo anterior.

Base 3.2. A efectos de esta ayuda, son miembros computables de la unidad familiar el padre y/o la madre del alumnado objeto de la ayuda que convivan en el mismo núcleo, o en su caso, el tutor o la tutora o persona encargada de la

BERRIOZAR

Berriozarko Udalaren "Francisco Casanova" Musika Eskolan musika ikasketak egiteko laguntzen deialdia. 2020/2021 ikasturtea.

Oinarri Arautzaileak

I.-Deialdian sartutako ikasketak.

1. oinarria- Laguntza hauek eskatzen ahalko dituzte Udalaren "Francisco Casanova" Musika Eskolan 2020/2021 ikasturtean musika ikasketa hauek egiten ari diren eta Berriozarko erroldan dauden ikasle guztiek.

II.-Ematen diren laguntza motak.

2. oinarria- Laguntzek familiei neurri batean sostengua ematea dute xede, gisa honetako ikasketen gastuak finantzatu ditzaten.

III.-Eskatzaileak bete behar dituen baldintza orokorrak.

3.1. oinarria- Hona hemen laguntzen eskatzaile eta onuradun izan daitezkeen pertsonak:

- Aita, ama edo legezko tutorea, beraiek egin dituzten ikasketengatik, edo haiekin eta haien kargu bizi diren 18 urte baino gutxiagoko seme-alabek edo pertsonak egindakoengatik (baita 18-25 urte bitartekoek egindakoengatik ere, instrumentua 8 urtez baino gutxiago ikasi badute).

- Beren izenean, aurreko lerroaldean sartzen ez direnak.

3.2. oinarria- Laguntza honi dagokionez, familia unitatean sartzen dira laguntza eskatzen duen ikaslearekin bizi diren aita eta/edo ama; bestela, ikasle adingabearen zaintza eta babesaz arduratzen den tutorea edo pertsona, eta 2019ko

guarda y protección del alumnado menor de edad y todas las personas (descendientes, ascendientes, familiares...) por las que en la declaración de renta del año 2019 corresponda reducción por mínimo familiar.

Si el o la estudiante está casada o convive con persona a la que se halle en una unión con análoga relación, la unidad familiar la formarán estas personas así como las personas con los requisitos de edad y convivencia del párrafo anterior.

Base 3.3.-La persona solicitante deberá ser el padre o la madre del o la estudiante objeto de la ayuda, o en su caso, el tutor o tutora o persona encargada de la guarda y protección de la o el estudiante menor de edad y esta persona deberá reunir los siguientes requisitos:

-Estar empadronada y residiendo en Berriozar, al menos, desde el 1 de junio de 2019 ininterrumpidamente, tanto el alumno o alumna como los padres, madres, tutores o tutoras del alumno o alumna. En caso de separación, divorcio o hijo o hija extramatrimonial bastará con que una de las personas progenitoras esté empadronada en Berriozar desde dicha fecha.

-Que el o la estudiante curse estudios de los especificados en la Base 1 de la presente convocatoria.

IV.-Requisitos académicos.

Base 4.-La ayuda concedida estará condicionada al informe positivo del Director de la Escuela Municipal de Música "Francisco Casanova", referido al aprovechamiento escolar en el curso 2019/2020. El sentido negativo del citado informe podrá dar lugar a la suspensión y revocación de la ayuda concedida.

V.-Requisitos económicos.

Base 5.-

A.- Que la renta per cápita familiar de 2019 no sea superior a 7.000 euros.

A los efectos de esta convocatoria, se considera renta per cápita anual a la cantidad que resulte

errenta aitorpenean familiaren gutxienekoagatik murrizketa duten lagun guztiak (aurrekoak, ondorengoak, ahaideak...).

Ikaslea ezkondua bada edo, antzeko harremana dela medio, bikotekidearekin bizi bada, bikoteak osatuko du familia unitatea, baita aurreko lerroaldean aipatu diren adin eta bizikidetasun baldintza berberak betetzen dituzten pertsonak ere.

3.3. oinarria- Laguntza jasoko duen ikaslearen aita edo ama dira eskatzaileak; bestela, ikasle adingabearen zaintza eta babesaz arduratzen den pertsona edo tutorea, eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- Ikaslea eta ikaslearen gurasoak Berriozarko erroldan egotea eta herrian bizitzea gutxienez 2019ko ekainaren 1etik, etenik gabe. Gurasoak bananduta edo dibortziatuta badaude edo seme-alaba ezkontzaz kanpokoa bada, nahikoa da gurasoetako bat Berriozarko erroldan egotea aipatutako datatik aurrera.

- Ikaslea deialdi honetako 1. oinarrian zehazten diren ikasketak egiten aritzea.

IV.-Ikasketek bete beharreko baldintzak.

4. oinarria- Laguntzarako baldintza izanen da Udalaren "Francisco Casanova" Musika Eskolako zuzendariaren onespentxostena, ikasleak 2019/2020 ikasturtean izandako aprobetxamenduari buruzkoa. Txosten hori ezespenekoa izateak ekartzen ahal du emandako laguntza bertan behera uztea eta kentzea.

V.-Baldintza ekonomikoak.

5. oinarria-

A.- Familiaren 2019. urteko per capita errenta 7.000 eurotik gorakoa ez izatea.

Deialdi honi dagokionez, urteko per capita errentatzat hartuko da zatiketa honetatik ateratzen den zenbatekoa: 2019ko Pertsona

de dividir la base imponible de la unidad familiar de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del año 2019; o, en su caso, la cantidad de ingresos justificados del año 2019 entre el número total de las personas miembros de la unidad familiar en el momento que se realiza la matrícula. La unidad familiar a tener en cuenta será exclusivamente la que se considere a efectos del IRPF más los hijos e hijas nacidas entre el 31 de diciembre de 2019 y la fecha de matriculación. En todos los casos se considerará la declaración o los ingresos justificados de padre y madre, excepto cuando exista sentencia de separación, divorcio, o medidas legales para hijo o hija extramatrimonial. En dichos casos se considerará la declaración del o la progenitora que ostente la guarda y custodia del o la menor, añadiendo a su base imponible la cantidad económica anual estipulada en la sentencia. Si existe custodia compartida se sumaran los ingresos de ambas personas progenitoras.

A efectos prácticos se entenderá que la base imponible es el resultado de la suma de las casillas: 507, 8810, 706 y 765 y 529 (rentas exentas) del impuesto sobre la renta de las personas físicas del ejercicio 2019 en la Comunidad Foral de Navarra o las casillas equivalentes en el resto del Estado.

En el caso de no estar en la obligación de presentar la declaración de la renta, la cantidad de ingresos a justificar del año 2019, se hará mediante certificado del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra que justifique la no obligación o, los documentos que se consideren necesarios para determinar los ingresos familiares del año 2019.

La ocultación de cualquier fuente de renta dará lugar a la denegación de la ayuda solicitada o a su anulación si ha sido concedida.

Para intensificar el control que evite el fraude en las declaraciones encaminadas a obtener ayudas, el Ayuntamiento de Berriozar podrá acordar que existe la ocultación a que se refiere en el apartado anterior por medio de cualquier prueba.

B.- No tener deudas pendientes con el

Fisikoen Errentaren gaineko Zergako familia unitatearen zerga-oinarria (edo, hala behar badu, 2019an justifikaturiko diru-sarreraren zenbatekoa) zati matrikula egiten denean familia unitateak dituen kide guztiak. Aintzat hartuko den familia unitatea soilik izanen da PFEZaren ondorioetarako aintzat hartzen dena gehi 2019ko abenduaren 31tik matrikula egiten den egunera bitarte jaiotako seme-alabak. Kasu guztietan, aitaren eta amaren aitorpenak hartuko dira aintzat, salbu eta banantze nahiz dibortzio epaia edo ezkontzaz kanpoko seme-alabendako legezko neurriak daudenean. Kasu horietan haurraren zaintza eta ardura duen gurasoaren aitorpena hartuko da aintzat, eta haren zerga-oinarriari epaian ezarritako urteko diru kopurua erantsiko zaio. Zaintza partekatua bada, bi gurasoen sarrerak batuko dira.

Ondorio praktikoei dagokienez, zerga-oinarria laukitxo hauen batura da: Nafarroako Foru Komunitateko 2019ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako 507, 8810, 706, 765 eta 529.a (salbuetsitako errentak), edo Estatuaren gainerako tokietako laukitxo baliokide direnena.

Errenta aitorpenik aurkeztera beharturik ez dagoenak, 2019tik egiaztatu beharreko diru-sarreraren kopurua eta, beraz, beharkizun eza, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiri baten bitartez egiaztatuko du, edo, bestela, 2019an familiak izan dituen diru-sarrerak zehazteko behar diren agirien bidez.

Errenta iturriren bat ezkututzen bada, eskatutako laguntza ukatuko da edo, emana baldin badago, baliogabetuko.

Laguntza lortzeko aitorpenetan iruzurra saihestuko duen kontrola areagotzearen, Berriozarko Udalak edozein frogabidez erabakitzen ahal du aurreko atalean aipatzen den iturri ezkutaketa badagoela.

B.- Eskaera egiten denean eta diru-laguntza ordaintzen denean zorrik ez izatea Berriozarko

Ayuntamiento de Berriozar en el momento de la solicitud ni en el momento de la concesión de las ayudas.

VI.-Percepción y cuantía de las becas y ayudas.

Base 6.-Los intervalos de renta aplicables para la concesión de ayuda según los ingresos familiares per cápita son los siguientes:

Menor o igual a 3.300 euros: 75%. Ayuda máxima.

Más de 3.300 a 5.300 euros: 65%. Ayuda máxima.

Más de 5.300 a 6.600 euros: 40%. Ayuda máxima.

Más de 6.600 a 7.000 euros: 30%. Ayuda máxima.

Más de 7.000 euros: 0%. Ayuda máxima.

El porcentaje de ayuda reseñado para cada intervalo de renta per cápita es el máximo que se puede conceder y su porcentaje exacto dependerá de la consignación presupuestaria existente y de las solicitudes presentadas. *(Los porcentajes reales de subvención que se han otorgado en los últimos años no han superado el 40% en el caso de las becas que están en el mayor tramo de ayuda (75%), debido a la necesidad de prorratear los 6.000 euros de disponibilidad económica entre todas las solicitudes de ayuda a otorgar).*

Las personas perceptoras de las becas serán las solicitantes.

VII.-Presentación de solicitudes.

Base 7.-Las personas interesadas presentarán su solicitud y los documentos que se relacionan, en el Registro Electrónico (<https://sedeelectronica.berriozar.es/registro-electronico/>), en el plazo de quince (15) días naturales, a partir del siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

La documentación que se debe presentar para la concesión de la ayuda es la siguiente:

Udalarekin.

VI.-Beka eta laguntzen zenbatekoa eta haiek jasotzea.

6. oinarria- Hauek dira laguntza emateko aplikatuko diren errenta tarteak familiaren diru-sarreretan, kide bakoitzeko:

3.300 euro edo hortik beheiti: %75. Gehieneko laguntza.

3.300 eurotik 5.300 eurora: %65. Gehieneko laguntza.

5.300 eurotik 6.600 eurora: %40. Gehieneko laguntza.

6.600 eurotik 7.000 eurora: %30. Gehieneko laguntza.

7.000 eurotik gora: %0. Gehieneko laguntza.

Per capita errentaren tarte bakoitzeko aipatu den laguntzaren portzentajea da, hain zuzen, gehienez eman daitekeena. Zehazki jakiteko, aurrekontuan dagoen dirua eta zenbat eskabide dauden hartuko dira kontuan. *Azken urteetan emandako diru-laguntza errealak ez dira izan gastuaren %40 baino gehiagokoak (laguntzarik handiena jaso behar dutenen kasuan, hau da %75), izan ere, laguntza eskaera guztien artean hainbanatu behar izan da kontzeptu honetarako erabil daitekeen 6.000 euroko kopurua.*

Eskatzaileak dira laguntzak hartuko dituztenak.

VII.-Eskaerak aurkeztea.

7. oinarria- Interesdunek beren eskabidea eta aipatzen diren gainerako agiriak aurkeztuko dituzte hamabost (15) eguneko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, Erregistro Elektronikoaren bidez (<https://sedeelectronica.berriozar.es/registro-electronico/>).

Dokumentazio hau aurkeztu behar da laguntza jasotzeko:

-Berriozarko Udalak emandako eredu ofizialaren

-Instancia cumplimentada según modelo oficial. Se deberá indicar una dirección de correo electrónico de la persona solicitante.

-Fotocopia completa de la declaración del I.R.P.F. conjunta o individual de ambas personas progenitoras del año 2019 o certificado de la Administración correspondiente en el caso de no tener obligación de efectuar la declaración del I.R.P.F.

-Si la unidad familiar no ha realizado la declaración del I.R.P.F., por no estar obligada a ello, deberá acompañar a la solicitud:

-Certificado o documento de la Hacienda correspondiente a los datos fiscales correspondientes al año 2019 de todas las personas que formen parte de la unidad familiar o borrador de la declaración de IRPF.

-Cuantos documentos sean necesarios para determinar las personas miembros de la unidad familiar.

- Autorización al Ayuntamiento de Berriozar para que este pueda consultar los datos fiscales de los solicitantes en la hacienda tributaria de Navarra.

- Fotocopia del Libro de familia.

- En caso de separación o divorcio o en caso de hijo o hija extramatrimonial. Se aportaran los siguientes documentos:

1) En la separación de hecho, se deberá presentar, o bien documento notarial, o fotocopia cotejada con el original de justificantes de interposición de demanda u otros documentos que avalen dicha situación.

2) En caso de divorcio o separación legal, deberá presentarse fotocopias cotejadas con los originales de las sentencias judiciales que determine la misma.

En caso de existencia de hijo/a no matrimonial reconocido por el padre, deberá de presentarse fotocopia cotejada con el original de medidas de guarda y custodia y pensión de alimentos. En su defecto, justificación de interposición de demanda u otros documentos que avalen dicha situación.

araberako eskabide betea. Eskatzailearen helbide elektronikoa bat zehaztu beharko da.

-2019ko PFEZaren aitoren bateratuaren fotokopia osoa, edo bi ezkontideena, edo dagokion Administrazioaren ziurtagiria, PFEZaren aitorena egitera beharturik ez daudenen kasuan.

-Familia unitateak, beharturik ez dagoelako, PFEZaren aitorena egin ez badu, eskabideari ondoko hau erantsiko zaio:

- Ogasunaren ziurtagiria edo dokumentua, familia unitatea osatzen duten pertsona guztien 2019ko datu fiskalei dagokiena, edo PFEZaren aitorenaren zirriborroa.

- Familia unitateko kideak zehazteko behar diren agiri guztiak.

-Berriozarko Udalari emandako baimena, Nafarroako Zerga-Ogasunean eskatzailearen zerga-datuak ikusi ahal izateko.

- Famili liburuaren fotokopia.

-Gurasoak bananduta edo dibortziatuta badaude, edo seme-alaba ezkontzatik kanpoko bada, agiri hauek aurkeztuko dira:

1) Egitatezko banantzean aurkeztu beharko da notaritza agiria edo demanda jarri izanaren egiaztagirien kopia (jatorrizkoarekin erkatua) edo egoera hori ziurtatzen duten bestelako agiriak.

2) Banantzea legezkoa bada edo dibortzioa, egoera hori egiaztatzen duten epaien kopiak aurkeztu beharko dira (jatorrizkoekin erkatuak).

Ezkontzaz kanpoko seme-alaba bada, aitak aitortua, zaintzari eta mantenu-pentsioari buruzko neurrien egiaztagiria aurkeztu beharko da, jatorrizkoarekin erkatua. Bestela, demanda jarri izanaren egiaztagiria edo egoera hori ziurtatzen duten bestelako agiriak.

VIII.-Concesiones y denegaciones.

Base 8.1.-La resolución de esta convocatoria la realizará la Junta de Gobierno Ayuntamiento de Berriozar.

Base 8.2.-A todos los efectos legales, la concesión de la ayuda será a favor de la persona solicitante.

Base 8.3.-El Ayuntamiento de Berriozar podrá en cualquier momento disponer la inspección de los expedientes de solicitud para comprobar la veracidad de los datos consignados en los mismos y que sirvieron de base para la concesión de la ayuda.

Base 8.4.-Las personas beneficiarias o solicitantes que se nieguen a colaborar en el proceso de investigación o no aporten la información y documentación requerida causarán baja automática como solicitante o beneficiaria y reintegrará las cantidades percibidas en concepto de ayuda.

Base 8.5.-La ocultación o falseamiento de los datos económicos y/o circunstanciales, podrá dar lugar a la suspensión y revocación de la ayuda concedida.

Base 8.6.-El abono de las ayudas en aplicación de esta Convocatoria se hará con cargo a la partida presupuestaria 32610 48000000 BECAS ESTUDIOS MUSICALES, del vigente presupuesto de gastos del Ayuntamiento de Berriozar, y ascenderán a un máximo total de 6.000 euros.

Base 8.7.- Todas las notificaciones que genere el procedimiento se realizarán en el correo electrónico especificado por la persona solicitante y una vez realizadas tendrán plena validez administrativa.

IX.-Interpretación.

Base 9.1 La interpretación de estas bases corresponde a la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Berriozar."

X.-Información Básica Protección de Datos.

Responsable: Ayuntamiento de Berriozar.
Finalidad: Gestionar las ayudas y subvenciones

VIII.-Laguntza ematea eta ukatzea.

8.1. oinarria- Berriozarko Udalaren Gobernu Batzordeak emanen du deialdiari buruzko ebazpena.

8.2. oinarria- Legezko ondorio guztietarako, laguntza eskatzailearentzat izanen da.

8.3. oinarria- Berriozarko Udalak noiznahi ikuskatzen ahal ditu eskaerako espedienteak, haietan ezarritako datuak, laguntza emateko oinarritzat hartzen baitira, benetakoak diren ala ez egiaztatzeko.

8.4. oinarria- Ikuskapen prozesuan laguntzeari uko egin edo eskatutako informazioa eta dokumentazioa aurkezten ez duten onuradun edo eskatzaileek, bertzerik gabe, onuradun edo eskatzaile izateari utziko diote, eta jasotako laguntza itzuli egin beharko dute.

8.5. oinarria- Datu ekonomikoak eta/edo inguruabarrak ezkutatu edo faltsutzearen ondorioz, laguntza bertan behera geldituko da eta jasotakoa itzuli egin beharko da.

8.6. oinarria- Deialdi hau aplikatuta ematen diren laguntzak ordaintzeko, 32610 48000000 kontu-saila erabiliko da (Musika Eskolako Bekak), Berriozarko Udalak indarrean duen gastuen aurrekontutik. Gehienez ere, 6.000 euro dira.

8.7. oinarria- Prozedurak sortutako jakinarazpen guztiak eskatzaileak emandako helbide elektronikora bidaliko dira eta, behin eginda, baliotasun administratibo erabatekoa izanen dute.

IX.-Interpretazioa.

9.1. oinarria- Berriozarko Udalaren Gobernu Batzarrari dagokio oinarri hauen interpretazioa.

X.-Datuak Babesteko Oinarrizko Informazioa.
Arduraduna: Berriozarko Udala. **Xedea:** Udalak

otorgadas por el Ayuntamiento. **Derechos:** Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional. **Información adicional:** La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegado de Protección de Datos está disponible en el apartado de Política de Privacidad de la Web municipal www.berriozar.es dpd@berriozar.es.

Berriozar de mayo de 2020

emaniko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. **Informazio gehigarria:** Datuen tratamenduei buruzko eta Datuak Babesteko Ordezkariari buruzko informazio gehigarria udaletxearen webgunean dago eskuragarri, Pribatutasun Politika atalean www.berriozar.es dpd@berriozar.es

Berriozar, 2020ko maiatza